

2018KO UZTAILAREN 4KO UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2018ko uztailaren 4an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

ALDERDI ERABAKITZAILEA

LEHENA.- Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerapena hasiera batez onartzeko proposamena.

BIGARRENA.- Udaletxearen berrikuntza eta igogailua eraikitzeko exekuzio proiektuaren 2. Separata onartzeko proposamena.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzak arautuko dituen Udal Ordenantza onartzeko proposamena.

LEHENENGO PUNTUA:

HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

IKUSIRIK:

“Elduaingo Hiria Antolatzeiko Plan Orokorren Antolatzeiko Aurrerapen” deritzon espedientea dagoeneko osaturik dagoela.

Alkate jaunak espedientearen ezaugarri nagusienak aipatu dituela.

Espedientea osatzen dutela Zebralab Arquitecturak idatzitako aurrerapen dokumentuak, eta Ekolur enpresak idatzitako Ingurumen Ebaluazio Estrategiko dokumentuak.

KONTUAN HARTUTA:

Lurzoari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.3 artikuluan xedatzen dela espedientea izapidetzeko prozedura.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Espedientea jendaurrean jartzea bi hilabetez azkeneko argitalpena egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta iragarkia Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea, baita Udal mugakideetara bidaltzea, eta azkenik espedientea Elduaingo Udaleko web orrian argitaratzea, hori dena jendaurreko epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko.

BIGARREN PUNTUA:

UDALETXEAREN BERRIKUNTZA ETA IGOGAILUA ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUAREN 2. SEPARATA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Kontuan harturik proiektua Zebra Lab Arquitecturak idatzi dutela eta lanen aurrekontuak 54.837,70€ko munta duela.-

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.-

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA.-

Onartzea udaletxearen berrikuntza eta igolgailu bat eraikitzeko exekuzio proiektua, Zebra Lab Arquitecturak egindakoa 54.837,70€ko munta duena.-

BIGARRENA.-

Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea.

HIRUGARRENA.-

Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2017 urteko udalaren aurrekontutan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea.-

HIRUGARREN PUNTUA:

DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

ELDUAINGO UDALEKO 2018RAKO ARAUDI PLANA

39/2015 Legea 2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean.

132 artikulua hau xedatzen du:

Planificación normativa.

1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente. P

or consiguiente, realizada la consulta con las distintas áreas, desde los departamentos de OSMB e Intervención se presentan propuestas de ordenanza que se especifican a continuación, para ser incorporadas en el Plan Normativo”.

Gauzak horrela, 2018rako Araudi Plana idatzi da.

Proposamena bozketara jarri da, eta Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Hasierako onespena ematea Elduaingo Udaleko 2018rako Araudi Planari.

BIGARRENA.

Espedientea jende aurrean jartzea, gutxienez, hogeita hamar eguneko epez, egoki iritzitako erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Epe horretan alegazio edo iradokizunik egongo ez balitz, behin betikoz onartutzat emango litzateke; Alkate-Presidenteari eskumena espresuki eman zaio, kasu horretan, argitaratu eta gauzatzeko.

ELDUAINGO UDALEKO 2018RAKO ARAUDI PLANA

Ikusita 39/2015 Legearen 132. Artikuluak xedatzen duena udal honek 2018an onartzea, edota sakonki aldatzea proposatzen duen ordenantzen zerrenda jarraian zehazten dena da:

1. 2019 urterako Elduaingo Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketa

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauarekin bat, Foru Arau honetan aipaturiko tributuak ezartzeko dira, araupetu eta mantentzeko beharrezkoak izan daitezten Ordenantza Fiskalak onartuko dira.

Halaber, prezio publikoak ezarri eta exigitu ahal izango dira udalerraren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik.

Guzti hori indarrean dauden ordenantza fiskalak jasoko dituen testu bateratu bat onartzeari kalterik egin gabe.

2. Elduaingo Udaleko 2018-2020 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Elduaingo Udaleko Dirulaguntzak emateko Ordenantza

Diru-laguntzak interes orokorrekotzat jotzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta legegileak Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokor azaroaren 17koaren bidez erregulatu ditu oinarrizko izaeraz.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarrizko izaera du; hori dela eta, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek onartu beharra daukate beren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Elduaingo Udala garrantziko jarduera ari da egiten diru-laguntzen arloan, pertsona fisiko eta juridikoen eta entitate publiko eta pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko helburuarekin.

Jarduera hori erregulatzeko asmoarekin idatzi behar da Diru-laguntzen Ordenantza Orokor hau, printzipio orokor batzuetan oinarritua, eta printzipio horiek inspiratu behar dute beti diru-laguntzak emateko jarduera: Berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, efikazia eta efizientzia

3. Administrazio elektronikoaren udal ordenantza

Administrazioaren prozedura eta araubidearen lege berriek, eta bereziki lehenengoak, eskatzen dute udal ordenantzak eta erregelamenduak hari egokitzea administrazio elektronikoari dagokionez.

4. Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren ordenantza. Elduaingo Udalak indarrean dagoen ordenantza egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuaren 12/2008 Legearen eskumen banaketara eta beharrezko jotzen dituen ezaugarrietara.

5. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantza Elduaingo Udala, Udaltzaingoa izan ezean, zirkulazioa antolatu, seinalizatu eta zuzentzeko eskumena garatzen du Udal Aguazilaren figuraren bidez 2016ko urtarrilatik aurrera; zerbitzu hori Euskadiko segurtasun publikoaren sisteman sartuko da.

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, eta Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Testu Bateratua onartu zuen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak zirkulazio-alorrean Udalari emandako eskumenaren arabera xedatuko da.

Horren xedea, beraz, alde batetik bide publikoen erabilera arautzea izango da eta, bestetik, gizartearen ohiko erabilerak eta ibilgailu gurgildunek behar duten arintasuna bateragarria egitea. Horrez gain, aparkatzeko baimendutako epea gainditzen denean, ibilgailuak bidea oztopatzen edo eragozten dutenean edota besteentzat arriskua sortzeko moduan daudenean bidetik kendu eta biltegira eramateko jardunbidea garatuko da Ordenantzan. Azkenik, herriko bideetan ibiltzeko trafiko legeak ezartzen dituen lege-haustek eta santzioak jasoko ditu Ordenantza honek.

6. Udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantza.

Udal honek, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 25. artikuluan, Toki Erakundeen Ondasunen Araudian eta horiekin bat datozen gainerako lege xedapenetan aurreikusitakoarekin bat, udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideen erabilera

arautzen du, horiek hondatu ez daitezzen. Aipatutako bideak arrazoi askorengatik honda daitezke: Edozein ibilgailu mota ibiltzen delako bide horietatik basoak edo harrobiak ustiatzeko, meatze lanak egiteko, lurak mugitzeko eta, oro har, lanak egiteko. Erabilera arautzearen beste arrazoi bat aipatutako jarduera eta lan horiek eragin ditzaketen kalteak ahal den heinean saihestea izango da, libre zirkulatzeko eta Elduaingo bizilagunen atsedeen eskubideak errespetatuz.

Eta, 20.15 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2018ko uztailaren 4an.

O.e.
Alkateak ,

Idazkari-Kontu-Hartzaileak,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Maria Pilar Garmendia Miguel